

## San Pedro jaiak hasi dira

Harri jasotzen  
lehia izan zen ▶ 6



# Giro eta maila bikaina izan da HITZA Pilota Txapelketan

**EMOZIOA** ▶ Renobales-Txertudi  
izan ziren irabazle etorkizunekoan  
mailan, emozio handiko partidan

**GARAILE** ▶ Olaetxea-Sagastibeltza,  
Urretabizkaia-Jaunarena, Iturriotz  
eta Irazusta-Berradre besteetan ▶ 2-3



Finaletako jokalariek guztiak garaikurrekin, antolatzaileekin eta udal babesleen ordezkariekin, igandean Beotibarren. IÑIGO TERRADILLOS

## ABALTZISKETA ▶

### Apustuak eta kirola jaian amaieran

Zaldi karrera, lehen  
aldiz, emakume  
batek irabazi zuen ▶ 4

## VILLABONA ▶

### Lander Etxeberria espetxez aldatu dute ▶ 6

## TOLOSA ▶

### Jendetza bildu zen igandeko estropada festan Oria ibaian

Herri giro aparta izan zen San Joan  
jaietako kirol erakustaldi honetan ▶ 5



Lau batelak ibaian prest eta ingurua jendez beteta. LEIRE MONTES

## LEITZA ▶



JAIONE ASTIBIA

**Diesel hilabetea Citroën-en**

**Liderra HDI diesel teknologian, eta eskaintza onenak**

**CITROËN C15**  
C 15 1.9D  
Furgoa 9.878 €\*  
2.400€

**CITROËN BERLINGO**  
Berlingo 1.9D  
Combo a C15 Pack-arekin  
11.950 €\*  
3.500€

**CITROËN JUMPY BERRIA**  
Jumpy 1.9D Comfort Furgoa  
13.780 €\*  
3.000€

**CITROËN JUMPER**  
Jumper HDI 85 29C  
15.085 €\*  
4.000€

www.citroen.es

FRANTZAKO BEREZTAR

www.citroen.es

**ZATOKI ETA IRUZIA**

**IROVI, S.A. CITROËN Kontzesionario Ofiziala** • Industriaidea, z/g. • Tel.: 943 65 18 42 • Anoeta-Tolosa

### Ikurren Legearen aurka azaldu dira

Larunbatean izan  
zen manifestazioa  
ikurriaren alde ▶ 7

HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶

# Pilota harrobi bikaina

Renobales-Txertudi, Iturriotz, Olaetxea-Sagastibeltza, Urretabizkaia-Jaunarena eta Irazusta-Berradre izan ziren txapelkunak igandeko finaletan; jendetza eta giro polita izan zen Beotibar pilotalekuan

JOXEMI SAIZAR

Igandean Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu ziren HITZA Pilota Txapelketako finalek harrobi bikaina dagoela erakutsi zuten. Bost mailetako azken partiduetan pilotari eta jokaldi apartak ikus ahal izan ziren. Emozio handiko lehiak sortu ziren finalisten artean, batez ere etorkizuneko mailan, Renobales-Txertudi eta Apezetxea-Arrastoaren artean.

Jaialdia benjaminen arteko finalarekin hasi zen. Lehen tantoetan paretsu aritu ziren, baina seinako berdinketaren ondoren Irazusta-Berradre usurbidarrek zazpi tanto egin zituzten jarraian 13-6 arte. Handik aurrera erraz izan zuten eta beste hiruna tanto eginenez 16-9 bukatu zuten. Haritz

Zelaia bidaniarrak urduri samar jokatu zuen eta Eneko Labaka albizturtarrantzat izan ziren pilota gehienak. Aurreko egunetan gaixo ibili zen Labaka eta horretan egon daiteke galtzearen arrazoia. Dena den, 10 urte besterik ez izan arren, gauza politak erakutsi zituzten lau pilotariek.

## Alebinak, gogor

Alebinen partidua izan zen jarraian. Partidu gogorra eta ikusgarria izan zen, tanto luze ugariarekin. Jon Jaunarena leitzarra nabarmendu zen bereziki, pilotari segurua dela erakutsiz, atzean eta aurrean, tarteke dejada eta bolea politak eginenez. Bera eta Urretabizkaia ikaztegiatarra jarri ziren aurretik 6-1, baina Etxaniz-Aizpuru

azpeitiarrek ez zuten etsi eta partiduari buelta eman zioten 6-7 jarritz. Handik aurrera paretsu joan ziren, berdinketak eginenez hamarna, hamaikana eta hamabina, baina ondoren lau tanto ein zituzten jarraian Urretabizkaia eta Jaunarenak, txapela merezimendu osoz irabaziz.

Infantiletan beste leitzar bat izan zen garaila, Haritz Sagastibeltza, Iraitz Olaetxea lizartzarrekin batera, Iker eta Unai Iraola lehengusu adunarren aurka. Lehen tantoetan paretsu joan ziren bi bikoteak 9-8 eta 11-9 arte. Hortik aurrera adunarrek atzera gelditu ziren, hainbat tanto jarraian galdutik eta markagailua 15-9, 15-11 eta 18-11 utziz.

Kadeteak bakarka aritu ziren lau t'erd barruan eta tan-

toetan alderik handiena maila horretan izan zen. Odei Iturriotz urdiaindarra izan zen txapelkun, Arkaitz Goikoetxea beasaindarra lau tantotan utziz. Nafarrak sei tanto jarraian egin zituen hasieran eta beti aurretik joan zen: 9-1, 12-2, 13-3, 16-3, 16-4 eta 18-4.

## Emozioa azken partiduan

Azken partidua, etorkizuneko mailakoa, izan zen emozio handikoa. Jon Apezetxea eta Xabier Arrastoa nafarrak ziren faborito, baina azkenean Renobales alegiarra eta Txertudi busturiarra izan ziren txapelkunak. Berdinketak izan zituzten launa eta zazpina. Handik aurrera markagailuak gorabehera batzuk izan zituen: 10-8, 11-9, 11-13, 15-13, 20-14, 21-

15, 21-19 eta 22-19. Alegiarrek, ikusleen artean zeuden jarraitzaile ugarien animoekin, tanto ikusgarriak egin zituen, aurreko koadroetan arintasuna frogatuz, baina tanto batzuk ere galdu zituen. Hala ere abantaila hartu zuten 21-15era iritsiz, Arrastoak galdutako tanto batzuegatik. Partidua ez zegoen bukatuta, nafarrek beste lau tanto egin baitzituzten asko urduri jarritz. Txertudi partiduko onena izan zen askoren iritziz.

Amaileran sari banaketaren txanda iritsi zen. Aurrera-Saiaz elkarte antolatzailearekin eta Hrrzako arduradunekin batera batera, babesle izan diren Aduna, Albiztur, Alegia, Bidegoian eta Tolosako udaletako ordezkariak eman zizkieten garaikurrak eta txapelak maila bakoitzeko irabazleei.

## EMAITZAK ▶

### BENJAMINAK

Iñaki Irazusta-Julen Berradre (Usurbil) 16  
Haritz Zelaia (Bidegoian)-Eneko Labaka (Albiztur) 9

### ALEBINAK

Beñat Urretabizkaia (Ikaztegieta)-Jon Jaunarena (Leitza) 16  
Etxaniz-Aizpuru (Azpeitia) 12

### INFANTILAK

Iraitz Olaetxea (Lizartza)-Haritz Sagastibeltza (Leitza) 18  
Iker Iraola (Aduna)-Unai Iraola (Aduna) 11

### KADETEAK

Odei Iturriotz (Urdiain) 18  
Arkaitz Goikoetxea (Beasain) 4

### ETORKIZUNEOAK

Ugaitz Renobales (Alegia)-Aliotz Txertudi (Busturia) 22  
Jon Apezetxea (Goizueta)-Xabier Arrastoa (Irurita) 19



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA pilota txapelketa: etorkizunen mailako finalaren irudi bat. IÑIGO TERRADILLOS

**HITZA**, eskualdeko plaza  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

**661 678 818**  
Toki aproposa iragartzeko

ODEI ITURRIOTZ ▶ KADETEA

## «Ondo berotu gabe hasiz gero tantoak egiten dizkizute, eta akabo»

18 eta 4 irabazi zion Odei Iturriotz urdiaindarrak Arkaitz Goikoetxea beasaindarrari.

**Zer nolako partidua izan da?**  
Ez da ikusgarria izan, baina tira... Txapela lortu dut eta pozik nago. Ez dut maila handiena eman, baina gustura nago.

**Abantaila izan duzu hasieratik.**

Hasieran hamar bat tanto hartu dizkiot eta tanto horiek errekuperatzea kostatu egiten da; hortik atera dut partidua, gehienbat.

**Aurkaria lasai hasi da, eta zu gogor.**

Ondo berotu gabe hasiz gero hori gertatzen da: tantoak egiten dizkizute enteratu gabe eta akabo partidua. Ni urduri hasi naiz oso, tentsio handiegia. Baina partidua joan ahala tentsio hori desagertu egin da eta azken hamar tantoetan nahiko gustura aritu naiz. Finalaz gozatzen, behintzat.

**Aurrerantzean zer asmo?**  
Espero dut udan partidu dezente jartzea, herriko festetan eta. Oraingoz nahiko ondo hasi naiz, eta ea hemendik aurrera itxura polita ematen dudana aurrera egin. ◀



INIGO TERRADILLOS

UGAITZ RENOBALDES ▶ ETORKIZUNEKOAK, AURRELARIA

## «Pozik nago baina partiduarekin ez naiz gustura geratu; gozatu gabe»

Ugaitz Renobales alegiarrak ez zuen igandean behar bezala gozatu. Pozik dago, hala ere.

**Gustura, Ugaitz?**

Alde batetik pozik nago irabazi egin dugulako, baina egia esan partiduarekin ez naiz gustura geratu, ez nuelako gozatzen, urduri nengoen, partidu erdian pilota bat sartu zait... Atzelariak partidu polita egin du bestalde, oso ondo aritu da. **Afizio handia bildu da hemen.** Beti eskertzen da afizioa gaineen izatea. Familiakoak, lagunak, herrikoak ondoan ditut

eta gustura hartzen da lagun-tza hori.

**Partidua gogorra izan da?**

Beroa zegoen, eta segituan bete egin naiz. Hutsegite dezente egon dira eta bai, gogorra izan da partidua.

**Berdinduta egon zarete.**

Erdi parera arte nahiko partidu gogorra egin dugu eta gero Xabier Arrastoa atzetik jaitsi egin da, eta nire atzelariak dominatu egiten zuen. Niretzat hori izan da gakoa.

**Ondo moldatu zarete?**

Oso gustura aritu naiz, bai. ◀



INIGO TERRADILLOS

ALIoTZ TXERTUDI ▶ ETORKIZUNEKOAK, ATZELARIA

## «Berba eginez gero beti ulertuko duzu bikotekidea, ezagutu ez arren»

Aliotz Txertudi busturiarrak balantze ona egiten du igandeko partidua.

**Partiduari buruz, zer?**

Hasieran hutsegite dezente egon da, pixkanaka hobetzen joan gara, partidu hobe egin, eta azkenean partidu polita izan dela uste dut.

**Nahiko berdinduta hasi zarete. Zergatik irabazi duzue?**

Partiduan zehar pilotak gehiago jokatzen hasi gara; guk egin ditugu tantoak, haiek egin dituzte hutsegiteak, eta azkenean ozta-ozta irabazi dugu. Oso

ondo jokatzen hasi dira haiek, eta edonork irabaz zezakeen.

**Zer gertatu da bada?**

Apur bat lasaitu egin gara, eta eurak hasi dira pilotara jokatzen gu baino gehiago. Azkenean guk irabazi dugu, baina edonork irabaz zitekeen garaila. **Ondo moldatu zara bikotekideekin?**

Ez nuen ezagutzen, ez dut inoiz jokatzen ikusi, baina berba eginda ondo ulertzen gara, eta horrela ibiliz gero beti ulertuko dugu elkar, nahiz eta laguna ez ezagutu. ◀



INIGO TERRADILLOS

## Gazteenen esanak

Benjaminen, alebinen eta infantilek ederki jardun zuten igandean; gogotsu aritu ziren

I. TERRADILLOS-I. ETXEBESTE

Benjaminen, alebinen eta infantilek lan bikaina egin zuten igandean HITZA Pilota Txapelketako finalean. Aurrelariekin eta atzelariekin, bikote bakoi-tzeko kide guztiekin hitz egin du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK haien iritziak jasotzeko:

IÑAKI IRAZUSTA

BENJAMINA, AURRELARIA

«Moztu egin dugu asko eta irabazi egin dugu»



«Seigarren tantotik aurrera moztu egin dugu asko eta besteek huts egin dute. Orduan gure tantoak aurrera joan dira, eta irabazi egin dugu horrela. 14-7 gindozazenean ikusi dugu partidua irabazita genuela. Orain ez dugu txapelketarik, baina hemendik aurrera dena irabazte-  
ra joango gara».

JULEN BERRADRE

BENJAMINA, ATZELARIA

«Pilota aldatzeak ekarri digu garaipena guri»



«Partidua zaila izan da, baina alde egin dugunean, pilota gora hartu eta salto egin duenean aldatu egin dugu eta horrekin hobeto ibili gara. Pilota biziagoa aukeratu dugu; besteek gogorragoa hautatu zuten eta aldatzea horri esker irabazi dugu. Beldur piska bat bagenuen, aurkariak oso onak zirelako, baina ondo atera da».

BEÑAT URRETABIZKAIA

ALEBINA, AURRELARIA

«Lasaitzen hasi, eta hobeto jokatu dugu»



«Hasieran galtzen hasi gara, gero partiduari buelta eman diogu eta hobeto joan gara. 1-6 galtzen joan gara, eta gora egin dugu handik aurrera. Jon hobeto hasi da, ni urduri samar nengoen. Gero askoz hobeto jokatu ahal izan dugu. Aurkariak oso gogorrak ziren, eta hala ere irabaztea lortu dugu. Txapelketan maila altua izan da orohar».

JON JAUNARENA

ALEBINA, ATZELARIA

«Azken tantoetan hartu dugu konfiantza»



«Gustura nago garaipenarekin. Hasieran gaizki hasi gara, aurkariak oso gogorrak zirelako, baina jakin dugu gora egiten. Beñat lasaitu denetik askoz hobeto aritu gara. Azken tantoetan konfiantza hartu dugu, eta ikuskizun polita eskaini ahal izan dugu. Festetan jardungo dugu, agian, baina momentuz ez dugu partidu bat bera ere ziurtatuta».

IRAIZT OLAETXEA

INFANTILA, AURRELARIA

«Uste baino zailagoa izan da irabaztea»



«Partidua gogorra izan da. Hasieran pixka bat eutsi diogu, gero nekatu egin gara, eta kostata irabazi dugu. Lehia gogorra izan da, eustea zen helburua, eta azkenean lortu egin dugu. Aurkariak oso onak ziren, eta uste baino zailagoa izan da garaipena lortzea. Hartzek asko jo du, eta berari esker irabazi dugu, gehienbat. Bikote gisa lehenengo aritu gara, eta ondo konpondu gara elkarrekin; hala uste dut».

HARITZ SAGASTIBELTZA

INFANTILA, ATZELARIA

«Pazientzia gehixeago edukitzea zen gakoa»



«Afizio handia da gero Leitzan, eta ez dago inoiz esaterik pilotari onak aterako garen edo ez, baino asko gustatzen zaigu; pilotari profesionalak baditugu herrian, eta horrek motibatu egiten gaitu. Gaurko partidua berdinduta ikusi dut hasieran; guk hasi gara irabazten, gero besteak, eta pixkanaka horrela joan gara. Bederatzigarren tantotik aurrera guk eduki dugu pazientzia handixeago, eta partidua motzagoa iruditu zait. Haiek azkarregi joan dira, eta guk eutsi egin diogu. Hori izan da gakoa. Ez dut asko gozatu, pilotak beratsagiak zirelako».

ABALTZISKETA ▶ SANJOANAK

# Apustuak eta kirola, jaiak agurtzeko

Zaldi karreran, emakume batek, Marisa Enrikek, irabazi zuen lehenengoz

## OLAIA ESKITXABEL

Ikusleak non-nahi eserita ikus zitezkeen; Abaltzisketan bertan ezezik. Amezketatik herri-rako bidean ere jende ugari zegoen apustua iragartzen zuen suziria entzuteko irrikiz.

Suziria entzun bezain laster abiatu zen aldapan gora Joseba Rojo tolosarra; rolleskian egin zuen Abaltzisketarako bidea. Atzetik, minutu eta 45 segundo beranduago Xabi Lasa arriarandarra abiatu zen bizikletan. Honek, Abaltzisketa iritsi baino pixka bat lehenago aurreratu zuen Rojo, hamabi segundoko aldea ateraz.

Jarraian, zaldi karrerari eman zitzaion hasiera. Abaltzisketatik aldapan gora ikus zitezkeen zaldunak bata bestearen atzetik. Guztira, bederatz lagunek hartu zuten parte.

Herrira bateratsu iritsi ziren lehenengoz bi zaldunak, emakumeak biak. Lehenengo postuan Marisa Enrike (Viento izeneko zaldiarekin) sailkatu zen, eta, bigarren, segundu batoko aldearekin, Olaia Irastegi (Ilargi zaldiarekin). Eskualdeko ordezkariak ere izan zen lasterketan: Naiara Orkietatolosa; bosgarren postuan sailkatu zen. Lasterketa emakume batek irabazten duen lehenengo aldia da.

Lehenengo hiruek sari ekonomikoa jaso zuten; eta gailontzeko parte-hartzaileak ere

ez ziren esku hutsik joan; pentsu zaku bana jaso zuten.

Sariak banatu ondoren, plaza bildu zen jendea aizkolari-rien saioa ikusteko.

## Aizkolari gazteak

Borobil bat eginez, aizkolariak inguratuz jarri ziren ikusleak; erdian, bi aizkolari gazte: Ugaitz mugertzarra eta Joseba zizurkildarra. Aurretik, lan ugari egiteko; enborra, txandaka, ahalik eta kolpe gutxienetan moztzen saiatu ziren, hasteko.

Ugaitz hasi zen lehenengo; 59 kolpetan moztu zuen enborra. Zizurkildarrak hartu zuen jarraian lekukoa; honek, 60 kolpe behar izan zituen.

Bigarren saioa ere oso parekatua joan zen. Josebak hasieran aurre hartu zuela bazurdi-aren, berehala parekatzea lortu zuen mugertzarrak; azken enborrean, gainera, erritmoa bizkortu eta apustua irabaztea lortu zuen Ugaitzek. Herriarrek zein kanpotarrek are gehiago bizitu zuten pil-pilean zegoen giroa.

Aizkolarien saioaren ondoren, herriko guraso elkarteak kideek sanjoanetan zehar saldatuko errifan zenbakia ateratu zen: 1.534a. Saria, urdaiazpiko hanka bat eta hiru ardo botila, bedaiotar bati egokitu zaizkio. Ateratako dirua eskolari laguntzeko bideratuko dela azaldu dute elkarteko kideek.



**Apustua.** Xabi Lasak arriarandarrak (txirrinduari) hamabi segunduko tartea ateratu zion Joseba Rojo tolosarrari. ©.ESKITXABEL



**Zaldi karrera.** Bederatz parte-hartzaileek egin zuten, zaldi gainean, Amezketatik Abaltzisketara bitarteko bi kilometroko ibilbidea. ©.ESKITXABEL



**Aizkolariak.** Herriko plaza jendez gainezka zegoen aizkolarien txanda iritsi zenerako. Borobil bat eginez, Ugaitz eta Joseba aizkolariak ikus zitezkeen erdian; emozio biziko saioa eskaini zuten. Oso parean ibili ziren bi gazteak baina azken enborrean Ugaitzek aurre hartu eta irabaztea lortu zuen. ©.ESKITXABEL

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-mail: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Tolosa.** Errementari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

**Tolosa.** Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berogailuarekin. 142.440 euro.

**Tolosa.** Errementari kalean, bi logelako apartamentua salgai. Oso egoera onean dago. 153.258 euro.

**Tolosa.** Solana kalean, bi logela, sukalde-egongela eta bainugela. Berritu, bizitzeko jartzeko moduan, argitsu.

**Tolosa.** Larramendi kalean; pisu ederra salgai. Garajearekin.

**Tolosa.** Alde Zaharrean, hormigoizko eraikuntza berrian pisua salgai; hiru logela. Igogailuarekin.

**Tolosa.** Bifamiliar batean etxebizitza salgai, 900 m<sup>2</sup>-ko lursaila, terrazarekin eta baxerarekin. Aukera paregabea. 234.395 euro.

**Tolosa.** Gernikako lorategian, 108 m<sup>2</sup>-ko pisu ederra salgai. Aukera handiak.

**Tolosa.** Lurramendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 438.739 eurotik aurrera.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta

komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 eurotik aurrera.

**Irura.** Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.

**Irura.** Bi logelako pisu polita. Gazteentzako aproposa. 158.066 euro.

**Villabona.** Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

**Beasain.** Logela bateko etxebizitza. 99.167 euro.

**Berrobi.** Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trastelekua eta garajearekin.

**Andoain-Urnieta.** Hainbat etxebizitza berri eta bigarren eskukoak.

**Baserriak.** Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

**Pabilioiak.** Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

**Borda.** Salgai Urnietan.

**Alkizan.** Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.

**Peñiscolan.** Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

Informazioa: 943 65 50 37

TOLOSA ▶ BATEL ESTROPADAK

# Zipriztin arteko festa

Jendetza erakarri zuen igandean batel estropada lehiak; erakustaldi polita eta herri giro aparta izan ziren nagusi



Beteranoen bi taldeek lehia estua eskaini zuten finalean, herritarren txalo eta animoak artean. LEIRE MONTES



Lau eskifaietako arraunlariak eta patroiak, lehia amaituta, sari banaketaren ondoren. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES

**H**amabost mila ikusle erakarri zituen igandean batel estropada lehia-erakustaldiak. Hala zioen behintzat mikrofonotik Jose Mari Barriola aurkezle atsegin eta txantxazaleak. Hamabost mila lagun ez, baina gainezka ziren Nafarroako zubia eta zubi Berriaren arteko txokoak. Ikusmin handia piztu zuen herriko lau eskifaien arteko lehiak. Eta herri giro paregabea ere bai.

Beteranoak A eta Hasiberriak B taldeak lehiatu ziren lehen tandan. 4 minutu, 30 segundo eta 00 zentesimako denbora eginez irabazi zuten lehenek; 05:10:01 egin zuten gazteek. Bigarren tandan Beteranoak B eta Hasiberriak A izan ziren gero aurrez aurre. Eta, berriz ere, beteranoak txapeldun, 04:38:05ko denborarekin; gazteek 04:46:05 egin zuten. Hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten ondoren Hasiberriek: A taldeak lortu zuen hirugarren postua, 4:54:07ko denbora eginez; 4:49:01ko denbora egin zuen B taldeak.

Finala, beraz, Beteranoek jokatu zuten. Sasotsu eta indarrez eragin zieten arraunei. «Aupa zaharrak, aupa zaharrak», animatu zituen Barriola esatariak. 04:21:06ko denborarekin irabazi zuen A taldeak; B taldeak 4:35:04 egin zuen.

Txalo zaparradak jaso zituzten arraunlariak. Erakustaldiaz gain, lehiatik haratago egindako ahalegina eta jarritako giroa eskertu zieten herritarrek.

SAILKAPENA ▶



**1. Beteranoak A (urdinak).** Koteli Perez, Migel Fresnedo, Mikel Amondarain eta Anjel Ortiz. Patroia: Jesus Ortiz.



**2. Beteranoak B (horiak).** Iosu Iztueta, Julian Gorostiaga, Txelis Lopez eta Agustin Pagola. Patroia: Vicente Navas.



**3. Hasiberriak A (gorriak).** Iker Kortajarena, Iban Ormazabal, Unai Perea eta Gotzon Iraola. Patroia: Iñaki Mendibil.

**4. Hasiberriak B (berdeak).** Eñaut Maiz, Igor Otero, Oier Arantzabal eta Aitor Elduaen. Patroia: Ambrosio Ibarzabal.

**TRANSPORTES**  
**IRVRZYN SL**

Asteasu/Indurizgunea,  
A. area, 3. zenbakia  
Tel.: 943 69 42 03  
Faxa: 943 69 44 11  
20159 ASTEASU  
e-mail: irurzun@irurzun.net • www.irurzun.net

**TXORTU**  
**Lantegiak, S. Coop.**  
Piezen mekanizaketa  
eta Muntaketa

Induri poligonoa,  
A. area, 9. zbk  
Tel.: 943 69 17 78  
Faxa: 943 69 33 87  
ASTEASU

**Irazu Ardoak**

Toki-Alai etxea, 1 esk  
ASTEASU  
Tel.: 943 69 19 40

**PATKINE JATETXEA**

Gure berezitasuna:  
Euskal sukaldaritza  
eta etxeko postreak

JAI  
ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE

Errementari kalea, 1 • 20159 ASTEASU  
Tel.: 943 69 10 25

**Iturri-Ondo**  
**ONDO PASA SANPEDROAK!**

Tel.: 943 69 13 31 • 20159 ASTEASU

**LEABURU TXARAMAKO UDALA**

jai zoriontsuak  
pasa ditzazuela!

Tel.: 943 67 59 31  
leaburu@udal.gipuzkoa.net

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**  
**Jatorrizko Sagardoa**

**SARASOLA** ondo pasa sanpedroak!

Sagardotegia - ASTEASU  
Tel.: 943 69 02 83  
Zumalikardi Baserria - ANOETA  
Tel.: 943 65 26 22

Larunbata eta igandetan  
eguerdian irekita

**talleres garmendi, s.l.**

**OXICORTE**

Asteasuko Industrialdea B-52  
ASTEASU  
Telf.: 943 69 11 61 - 943 69 10 69  
Faxa: 943 69 11 35  
P.K. 172 • E-mail: garmendiox@terra.es

SAN PEDRO JAIK ▶

# Jendetza handia Leaburun herri kirolen jaialdia ikusten

Izeta II.ak irabazi du Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa; Ostolazak altxaldietan berdindu arren, kiloek erabaki dute



Lau harrijasotzaileak: Astorkia, Izeta IV.a, Izeta II.a eta Ostolaza, Leaburun saioaren ostean. D. GIBELALDE



Lasto altxatzaileen ikuskizun polita. D. GIBELALDE



Andoni Otegi preso gogoan izan zuten. D. GIBELALDE

## SAN PEDROETAKO EGITARAUA ▶ GAUR

### ASTEASU

10:00. Txistularien diana.  
11:15. Meza. Ondoren,  
Elizmendir hamaitakoa eta  
pilota partiduak.  
18:30. Herriko musikarien  
kalejira.  
23:00. Musika Laja

trikitilariaren taldearekin.  
**Egunean zehar.** Haur parkea.

### LEABURU

10:30. Meza. Ondoren, Maiatz  
akordeo orkestra.  
12:00. Hamabitako herrikoia  
herriko ostatuan.

17:30. Ume jolasak eta  
txokolatada.

### URKIZU

09:00. Kanpaiak joko dira.  
11:00. Meza nagusia, ondoren  
hamaitakoa.  
14:00. Bazkaria.

### DANI GIBELALDE

Giro bikaina eta jende asko izan zen igandean Leaburun San Pedro jaien baitan antolatutako herri kirolen jaialdian. Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa jokatu zen lehenik, eta bertan Joxerramon Iruretagoiena *Izeta II.a* nagusitu zen, Ostolazarekin altxaldietan berdindu arren. Altxaldiek ez, jasotako kiloek erabaki zuten txapelketa, eta Ostolazak, *Izeta II.ak* baino kilo gutxiago jaso zituen bizkar gainera. Hirugarren postuan Odei Iruretagoien *Izeta IV.a* sailkatu zen, eta laugarren Joxe Ramon Astorkia izan zen. Azken biek, lehen aldiz parte hartu zuten txapelketan. Guztiek ere ez zuten zaleen animo eta txalo faltarik izan.

Bakoitzak hiru harriekin egin zuen lan: 125 kiloko zilandroarekin, 112,5eko kuboarekin, eta 100eko bolarekin. Harri bakoitzarekin hiruna minutuko txandak egin zituzten.

Harri jasotzaileen ondotik, lasto altxatzaileak aritu ziren lehian: Iñaki Preak 14 jasoaldi egin zituen, Xabier Seinek bezala; Jose Martin Bustintzak 15, Ande Arbenoitsek bezainbeste. Trontzalarien lehian, Igor Esnaola eta Joxe Gabirondo nagusitu zitzaizen Ibon Izazolari eta Jon Lapabarani.

Ohi bezala, jaietan Andoni Otegi leaburuarra gogoan izan zuten herritarrek, eta herri argakia atera zioten.

## SAILKAPENA ▶

### HARRI-JASOTZEA

#### Azken sailkapena.

| Izena                       | Jasotako kiloak |
|-----------------------------|-----------------|
| 1. Joxe Ramon Iruretagoiena | 9.312,5         |
| 2. Joseba Ostolaza          | 9.262,5         |
| 3. Odei Iruretagoiena       | 6.200           |
| 4. Joxe Joakin Astorkia     | 5.462,5         |

#### Guztira altxaldiak.

| Izena                       | Kopurua |
|-----------------------------|---------|
| 1. Joxe Ramon Iruretagoiena | 82      |
| 2. Joseba Ostolaza          | 82      |
| 3. Odei Iruretagoiena       | 55      |
| 4. Joxe Joakin Astorkia     | 48      |

## ANOETA ▶

## Dantza eta pilotarako matrikulazioa

Asteazkena baino lehen eman beharko dute izena haurrek

### G. AZKUE

Anoetako udal dantza eta pilota eskolatan izena emateko epea irekita dago. Urrik aurrrera bi ekintzetan aritu nahi duten haurrek orain eman beharko dute izena udaletxean, asteazkena baino lehen.

Dantzan hiru urtetik aurrerako haurrek eman dezakete izena; pilotan berriz, bost urtetik aurrerakoak. Urriaren 4an hasiko badira ere, kurtso hasieran zehaztuko da ordutegia, adinaren arabera, eta Loatzko Musika Eskolako ordutegiak kontutan hartuta. Pilota eskolak frontoian izango dituzte eta dantza udaletxean.

## VILLABONA ▶

## Etxeberría, beste espetxe batera

### ERREDAKZIOA

Lander Etxeberria preso Draguignango espetxetik atera zuten atzo, entrega epea bukatzeko bezperan. Hirak jakin ahal izan duenez, beste espetxe batera eraman zuten eta gaur aterako dute handik. Ez da ziurra aske geldituko ote den.

## ZIZURKIL ▶

## Koadrilen Egunerako izen-ematea

### G. AZKUE

Larunbatean izango da Koadrilen Eguna. Egun osoko festa antolatu dute Urkamendi elkarteak eta Elbarrenako festa batzordeak. Koadrilen arteko poteoarekin hasiko da festa 13:00etan. 14:00etan bazkaria izango da Joxe Arregi plazan. Ondoren jokoak izango dira plazan. Bazkarira joan nahi dutenek izena eman beharko dute asteazkena baino lehen Aurreran.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.:616 93 17 88



**Ordizia.** 50m2-ko etxebizitza, 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatze. 25.000.000 pezeta. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56

**Ordizia.** Erabat kanpokaldera dagoen 75 m2-ko etxebizitza, balkoia eta bista ederrak. Bizitzera sartzeko prest. 25.000.000 pezeta. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56

**Alegia.** Eraikuntza berria, duplexak eta etxebizitzak 34.500.000 pezetatik aurrera. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56.

**Villabona.** Kale Nagusian 75 m2-ko

etxebizitza, 3 logela, aparteko egongela-sukalde «amerikarra», bizitzera sartzeko moduan. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56.

**Villabona.** Kale Nagusian berrikuntza dagoen, 80 m2-ko atikoa, 4. pisua, igogailurik gabe. 25.000.000 pezeta. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56.

**Tolosa.** Plaza Berrian 100 m2-ko etxebizitza, bizitzera sartzeko prest. 3 logela, 2 bainugela, egongela-sukalde «amerikarra». 4. pisua igogailurik gabe, fatxada eta teilatu berriak. Inmo

Ebesagasti 943 69 68 56.

**Tolosa.** Sam-en 150m2-ko etxe atikia. Lorategiarekin. 76.000.000 pta. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56.

**Tolosa.** Urkizu auzoan berrikuntza behar duen 170 m2-ko 2 solairu dituen baseria salgai. 125.000 m2-ko fruitu arbolak, bista zoragarriak. Inmo Ebesagasti 943 69 68 56.

**Villabona.** Lokal komertzialak, taberna, alokairuan edo salgai. Informazio gehiago: Inmo Ebesagasti 943 69 68 56 telefonoan.



## Ikurriñaren alde, manifestazioa egin zen

**LEITZA** ▶ Larunbatean *Ikurriña gurea - Euskal Herriari bai* lemapean, Leitzan burutu zen manifestazioa, 350 lagun bildu ziren, Ikurren Legea delakoaren aurka protesta egitera eta Ikurriña zein Nafarroako Kateak, Euskal Herriaren ikur direla aldarrikatzera. Leitzaldeko jendeaz gain, Goizueta, Larraun, eta Bortzirikakoak ere bertaratu ziren. Herriko

kaleetan zehar ibili eta, ondoren, dantzariak aurretik eraman zuten ikurriñari, agurra egin zioten plazan, txalapartari eta dantzariak beraiek. Bukaeran, irakurritako idatziarekin, «gerora ere antolatuko diren ekitalditan parte hartzeko» eta, udako festak heldu direla aipatuz, «etxeetako balkoieta bi ikurrak jartzeko» deia egin zuten antolatzaileek. J. ASTIBIA

## LEITZA ▶ FESTA

JAIONE ASTIBIA

Igandea egun borobila izan zen Gorritararen. Auzoko eguna izanik, egun beteko egitaraua zegoen prest eta baita bete ere.

Jende asko bildu zen festara, «goiz-goizetik, meza ere bazen eta», zioten antolatzaileek. Egun osoan zehar jendea joan-etorrian ibili zen eta egun pasa bertaratu zenik ere izan zen, esate baterako bazkaltzera hara bildu ziren 50etik gora bazkaldar. Edozein moduz oso gustura azaldu ziren egunaren martxarekin, iluntzean hasi zuen langarrak «zozketa piska bat nabartu» bazien ere.

Goiz partean umeak estaketan ibili ziren, hankaz, nahiz auspoz globoak lehertuz eta harrapaketan, besteak beste. Ondoren helduen txanda iritsi zen eta Gorritarandarra eta herriarren arteko norgehiagoka ikusteko aukera izan zen herri kirolean eta soka-tiran berriz, sail desberdinetan aritu ziren.

Bazkalondoan, musarako txanda hartu zuten eta sariketa ere izan zuten. Eta dantzarako beta ere bai, egun osoan trikitilariak eta beste ere, izan baitzi- ren entzungai.

Ekitaldirik ikusgarrienetako ordea, akaso, eta jendea harrituta eta gustura gelditze- ko modukoa, Txintxurrin saioa izan zen, Gorritarandarren ariketa ezaugarritzeko: parte- hartzaile dezenterekin, azke-

# Festa egun ederra burutu zen igandean Gorritararen auzoan

Goizean goizetik hasi eta gauerdia arteraiono ekitaldiz josia, era askotakoak eta erabat parte-hartzaileak guztiak



Neska-mutikoak sokari tiraka, nor baino nor. J. ASTIBIA



Trikitilariak lanean. J. ASTIBIA



Txintxurrineko irabazlea, Betraneko gaztea. J. ASTIBIA

## GIZARTEA ▶

## Arkupeak-ek omenaldia eskaini zien adinduei

J. ASTIBIA

Lehenengo ostiralean, Arkupeak elkarteak omenaldia eskaini zien adinduei, Donezteben. Elkartetik bertatik jakitera eman dutenez, «Areson ez dago adin horretako lagunik aurtun eta ez zen omen- durik izan eta Leitzan ere, beste urteetan baino askoz ere gutxiago ziren eta batzuk ezin izan zuten hara bertaratu gainera».

Horrela, 85 urtekoen artean, Basilio Ranz dago eta Urrezko Ezteiak dituztenak berriz, Bernabe Azpiroz eta Asuntzion Lasarte, eta Patxi Alduntzin eta Maria Zestau. Bautista Irazokik ere, bere oroigarria jaso zuen, apaiz lanetan 50 urte baitarama- tza.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asuntzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Ollareaga A., Korreo, 2,

(Tolosa), 943 67 01 28

Larraia, Elbarren, 95, (Leitza).

112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona\_aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitza.** 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### LAN ESKAINTZA

**Etxeko lanak.** Emakume bat behar da Alegian, etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 10:30etik 14:30era. Telefono zenbakia: 943 65 30 34. (Arratsaldean deitu).

